

Europako patinatzaile onenekin

Kepa Caballero
Amsterdamera doa ▶ 2



Bigarren erraustegia ez dute Villabonan jarriko, Donostian baizik

BOTOAK ▶ Aritzetak 10 boto jaso ditu Jarraipen Batzordean, Villabonak bi eta Urnietak bat

AURKA ▶ Erabaki «politikoa» izan dela dio Odon Elorza Donostiako alkateak, eta ez teknikoa ▶ 4



Herri kirolak eta zaldi karrera santamaña jaietan

ALBIZTUR-ASTEASU ▶ Herri kirolak eta zaldi karrera izan ziren igandean Santamaña jaietan, Albizturren eta Asteasun. Albizturko Santa Marina auzoan egun bateko jaia izan zuten eta jende ugari bildu zen herri-jasotzaileak, aizkolariak, trontzalariak eta korrikalariak ikusteko —argazkian—. Asteasun berriz, Santa

Marina ermitaren inguruan, asteburu osoan izan zen zer ikusi. Ekitaldirik garrantzitsuen zaldi karrera izan zen. Hamabi zaldunek hartu zuten parte igandean eta Josu Castañares elgoibartarra izan zen irabazle Antxotako zirkuitoan, Iñaki Izagirre asteasuarraren aurretik. OLAJA ESKITXABEL ▶ 5

ARESO ▶

Sokatiralariak, Euskal Herriko txapeldun, 7

ZORROTZ KUTXILERIA
TOLOSA
ITXIERAGATIK DENA %40-ko
DESKONTUAREKIN

TOLOSA ▶

Neskak podiumean Espainiako Txapelketan

Zulaika, Aguerre eta Jauregi atletak Ferrolen izan dira ▶ 3

ALEGIA ▶

Intxausti omendu dute azken jai egunean

Txistulariek bere obra jo zuten ▶ 5

LEITZA ▶

Mujika gogoan izan dute

Miguel Sanz izan zen omenaldian ▶ 7

Ezagutu Tolosaldea
39 ibilbide seinaleztatuak zehar
12 €
tour@tolosaldea.net

KEPA CABALLERO ▶ PATINATZAILEA

IÑIGO ASENSIO

Herbeheretara joango da Kepa Caballero patinatzailea hilaren amaiera aldera. Bertan Europako Txapelketan lehiatuko da, kontinenteke patinatzaile onenekin. Berarekin harremanetan jartzea ez zen lan erraza izan. Caballero Bartzelonan dabil kontzentratuta, hurrengo astean Iruñean ariko da entrenamendua amaitzeko eta hilaren 28an Amsterdamera bidaiatuko du. Europako Txapelketan izango dituen helburuez eta patinaiaaren egoeraz mintzatu da tolosarra Hitzarekin.

Noiz hasi zinen patinatzen?

Abiadurako patinaiaarekin 13 urterekin hasi nintzen, hau da, benetan entrenatu eta konpetizioetan parte hartzen, nahiz eta patinatzen ume izanik ikasi nuen. Dena den, nahiko berandu da konpetizioetan hasteko, normalean 6-8 urterekin hasitea da ohikoa.

Abiadurako irristaketarekin hasi zinenetik, beste kirolirik praktikatu duzu, ala patinaira mugatu zara?

Konpetizioan patinaira mugatu naiz, nahiz eta pixka bat aldatzeko, neguan txirrindularitza eta iraupen eskia ere lantzen ditudan. Oso gaztetan igeriketan ere aritu nintzen, baina urte asko dira hortaz.

Egun hauetan egiten ari zaren kontzentrazioko prestakuntzak ba al du alderik urte osokoarekin?

Urtean zehar, garaia araberaren entrenamendu modu desberdinak lantzen ditugu. Aurredenboraldian lan mota bat egiten da, non egokitze orokor bat bilatzen dugun. Gerora, iraupena lantzen dugu, eta behin lehiaketan bete betean sartuta gaudenean, intentsitatearekin hasten gara lanean. Ez dira urte hasierako entrenamenduen iraupen berekoak, baina kontzentrazio hauetan entrenamendu karga handiekin aritzen gara lanean eta agian hau da garairik gogorre-na. Gimnasioan aritzen gara muskulazioa egiten, eta batez ere patinekin egiten dugu lan.

Entrenamenduz gain, elikadura ere oso garrantzizkoa izango da lehiaketa maila hauetan, ezta?

Bai, dudarik gabe. Gure elikaduraren %80a karbohidratoak dira. Honetaz gain proteinak ere beharrezkoak ditugu. Koi-



AITOR ELDUAIEN

«Nire patinatzeko era oso lehiakorra da»

Kepa Caballero patinatzaile tolosarrak dio 20.000 metroko kanporaketa proban dituela aukera handienak irabazteko

peak gure etsai handiena dira, gero eta gutxiago hobe.

Zenbat denbora irauten du zuen denboraldiak?

Otsailean hasi eta urrira arte. Une honetan Bartzelonan zaudete kontzentratuta, ezta? Bai, selekzioan Bartzelonako jende asko sartu da, eta denak ez gauden arren, gehientsuenak bildu gara hemen. Hemen instalazio onak daude eta hori

ere kontuan hartu da. Gerora Iruñara bidaiatuko dugu, uztailaren 24tik 28ra bertan aritzeko.

Eta Iruñeako kontzentrazioa amaituta, Herbeheretara?

28an abiatuko gara Iruñetik Madrilera, eta ondoren Madriletik Amsterdanera. Bertan furgonetaz mugituko gara.

Zein probatan hartu behar duzu parte Europakoetan?

Iraupen probak dira nire ezagutgarri fisikoetara ondoen egokitzeko direnak. 20.000 metro kanporaketa, 10.000 metro puntuaketa eta maratoi probetan hartuko dut parte. Puntuaketa proban, beste taldekide baten alde egingo dugu, beraz nire aukerak beste bi probetan egongo dira. Horrez gain, taldekako errelebo proban ere parte har nezake.

PALMARESA

- ▶ Espainiako Txapelketako sailkapen orokorraren irabazle 3 aldiz
- ▶ Espainiako Txapelketetan 3 urrezko domina
- ▶ Espainiako Txapelketetan 8 zilarrezko domina
- ▶ Espainiako Txapelketetan 20 brontzezko domina
- ▶ Frantziako 3 pista Nazioarteko Sari Nagusian 5. postua 2003an
- ▶ Frantziako 3 pista Nazioarteko Sari Nagusian 8. postua 2004an.

Hauetatik zeinetan izan dezakezu aukerarik gehien?

Nire patinatzeko era oso lehiakorra da. Indarririk badut, lasterketaren buruan joatea gustatzen zait. Horregatik, kanporaketa proban emaitza onak lortzeko esperantzak ditut. Proba honetan 100 bira ematen dira 200 metroko zirkuitu batean. Bira bakoitzean azkena kanporatua geratzen da, eta ni ondo kokatzen naizenez, gustura ibiltzen naiz honelako probetan.

Eta Europako Txapelketan egindakoaren arabera, Italiako Munduko Txapelketara?

Bai, Munduko Txapelketa, irailko lehen astean izango da, Roma inguruko herririk batean. Bertan egotea ondo legoke, eta aukerak baditut, baina oraingoz Herbeheretan daukat burua.

Hemen patinaia profesionalizatu gabe egoteak, desabantailan jartze al zaituzte atzerriko patinatzaileekin neurtean?

Bai, adibidez Alemania, Frantzia edota Italiara joaten bazara, talde mordoa aurki dezakezu. Bertan profesionalizazio maila handia dago han eta alde nabarmena da.


Nola lortzen duzu lanerako eta entrenamendurako denbora?

Arlo horretan zorte handia daukat. Donostiako suhiltzaile plaza lortu dut, eta lan horrek entrenatzeko denbora asko uzten dit. Egutero hiru bat ordu entrenatzen dut, baina badakit patinatzaile profesionalak goiz eta arratsaldeko saioak egiten dituztela, eta atsedenaldirako denbora gehiago dutela. Zaila dago profesional izatea, baina hori lortzearen borrokatuko naiz.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



ATLETISMO ▶

Tolosa CFko neskak podiumean Espainiako Txapelketan

Eva Zulaika bigarren 400 metro hesietan eta Justina Aguerre hirugarren pisu jaurtiketan; Amaia Jauregi ere, primeran



Ekzer-eskuin: Amaia Jauregi, Justina Aguerre eta Eva Zulaika, Espainiako Txapelketan. HITZA

LEIRE MONTES

Maila bikaina erakutsi dute Tolosa CFko atletak jubenil mailako Espainiako Txapelketan. Ferrolen (Galizia) jokatu ziren hilaren 10ean eta 11n, eta hiru neskek hartu zuten parte: Eva Zulaikak, Justina Aguerrek eta Amaia Jauregik. Horietako bi, gainera, domina jantzita itzuli ziren etxera: Eva Zulaika bigarren izan zen 400 metro hesietako proban, eta Justina Aguerre hirugarren pisu jaurtiketan. Bestalde, Amaia Jauregik, 400 metroan, hogeita bigarren marka onena egin zuen.

«Eva Zulaikak nagusitasun osoz irabazi zuen larunbatean finalerdietako proba, faboritoen artean zegoela baieztatuz. Igandean jokaturako finalean, azken metrotaraino lehenengo hiruak irabazterik izan zuten; baina Evak bigarren postuarekin konformatu behar izan

zuen. Marka ez zen espero bezain ona izan, altxatu zen haize handiak kalte egin zuelako atletei», azaldu dute Tolosa CFko ordezkariek. Denboraldi honetan 400 metrotan Espainiako txapelkun ere izan da Zulaika, pista estalian.

Justina Aguerrek «ezusteko pozgarria» eman zuen pisu jaurtiketako proban. «Bertara partaideen arteko hamargarren marka onenarekin azaldu zen; beraz, finalista postuetan sartzea ez zen helburu. Froga oso ondo hasi zuen, eta lehenengo jaurtiketatik lehen postuan jarri zen. Bigarren iritsi zen hirugarren jaurtiketara; eta hortxe erabakitzen zen nortzuk jarraitzen zuten eta nortzuk ez. Lehen postua oso urrun zuen, eta atzekoak gertu. Bere beste hiru jaurtiketan ezin izan zuen hasierako marka hobetu, baina besteek ere ezin izan zuten Justinaren mar-

ka gainditu. Ezustean lortu zuen brontzezko domina». Lesioak eta arazoak medio, Aguerrek ezin izan du ondo entrenatu denboraldi honetan, eta lortutako emaitzak «bikaintzat» jo dituzte Tolosa CFkoek.

Amaia Jauregik, bestalde, hogeita bigarren marka onena egin zuen 400 metrotan. «Finalerdietara hamasei pasatzen ziren, eta zaila zen, beraz; hala ere, 17 ehunenekogatik ez zen finalean izan. Oso maila ona erakutsi zuen».

HEZKUNTZA ▶

Peñascal Fundazioan matrikula zabalik

Peñascal Fundazioak zabaldu du datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroan izena emateko epea. 16-25 urte bitarteko graduaturik gabeko gazteei dago zuzenduta. Prestakuntza teknikoa, graduatua lortzeko klaseak eta lan mundurako irtenbide eskaintzen dute eskolek. Informazio gehiago eta izen-emateak 943 67 61 61 telefono zenbakian.

PALETA ▶

Tolosa CFren txapelketa azken txanpan

Tolosa CFren Paleta Txapelketa azken txanpan sartu da. Ostiralean Renobales-Imazek 15-30 galdu zuten Otermin-Goitiaren aurka, eta Lontxo-Nazabalek 25-30 Apeztegia-Maizaren kontra. Atzo multzo bakoitzeko bigarrenen arteko kanporaketa zen jokatzekoa, bigarren fasean beste hiru bikoterekin nortzuk ariko diren jakiteko; baina ateratu egin zen euriagatik. Oraingoan, Zabalera-Urdanpileta, Otermin-Goitia eta Apeztegia-Maiza bikoteak sailkatu dira. Bihar izango dira finalerdiak, eta ostiralean finala.

GIZARTEA ▶

Auto pilaketak kamioi bat irauli delako N-1ean

Atzo arratsaldeko ekaitzak hainbat kalte eragin zituen eskualdean. N-1ean, Irungo norabidean, Tolosa eta Ibarra arteko mugan, kamioi bat errepidetik atera eta irauli egin zen 18:18an. Bide bat itxi, auto pilaketak izan eta trafikoa herriaren barrutik desbideratu zuten. Gidaria zaurituta gelditu zen.

HIRUGARREN ADINA ▶

Oporrak Benidormen udazkenean

Haritze jubilatuen eta pentsiodunen elkarrekin udazkenean oporrak Benidormen igarotzeko aukera eskaintzen du. Urriaren 16tik 30era Fleming hotelean izango da egonaldia. Izena emateko epea zabalik da elkarteetan. Bazkideek 365 euro ordaindu behar dituzte, eta bazkide ez direnek 370. Izena emateko unean 100 euro aurreratu behar dira.

MENDIA ▶

Canfranc eta Panticosa aldera Alpino Uzturrerak

Alpino Uzturre mendi elkarrekin Canfranc eta Panticosa ingurura (Huescako Pirinioa) iteera antolatu du datorren astebururako. Egun batean Anayet mendia (2.559 metro) igoko dute, eta hurrengoan Arriel (2.824 metro). Informazio gehiago eta izen-emateak elkarteetan (Gudari, 5-behea. 943 65 27 89).

iragarki laburrak ▶



San Francisco etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: enia@lamoerrio.com
www.lamoerrio.com

Tolosa. Erremerentari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.
Tolosa. Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.
Tolosa. Zabalzarreta parkera ematen

duen 120 m²-ko pisu ederra salgai.
Tolosa. Larramendi, pisu ederra garajearekin salgai.
Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitsua.
Tolosa. Gernikako Arbolako lorategian, 108 m². Pisu ederra salgai. Aukera handiak.
Tolosa. Lurramendi auzoan, Sam-eko etxe abikia salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoa!
Ibarra. Kapribora guztiz berritutako etxea, material onenekin, ikusteko modukoa!
Ibarra. Julian Gaiarre. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.
Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 185.713 eurotik aurrera.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.
Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.
Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.
Andoain-Urnieta. Hainbat etxebizitza berri eta 2. eskukoak.
Baserriak. Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...
Pabilioiak. Aukera handia; salmentan eta alokairuan.
Borda. Salgai Urnietan.
Garaje itxia. Amaro auzoan salgai
Alkizan. Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai.
Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin. Informazio gehiago Enio inmobiliarian, 943 65 50 37 telefonoan.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Foru Aldundiak eginiko 2004ko ekitaldiari dagokion udalerrir honetako Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikula jaso da eta jendeari ezagutzera ematen zaio. Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Testu Bategina onartuz, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauamaleko 17.2 artikuluan eta aipatu zergaren kudeaketari dagokionean zenbait alderdi arautzen dituen (azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretu 2.3 artikuluan 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) ezarritakoa beteaz, ondoko arau hauen arabera.

a) Erakutsita dagoen lekua : Errenta eta Exakzio Atala.
b) Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea : Hamabost lanegunetako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eman eta ondorengo lanegunetik zenbatzen hasita (iragarki hau Udalteko iragarki Taulan ere jarriko da).

c) Errekurtsoa aurkezteko Organoa :Foru Aldundia (Foru Ogasuna).
d) Erreklamazioak aurkezteko lekua : Udalteko eta Foru Aldundiko sarrera erregistroa, lanorduetan.
Tolosan, 2004ko uztailaren 6an • ALKATEA

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Larunbateko ekitaldiaren une bat. TXIMO HERRI EKIMENA

Jende ugari hartu zuen parte Presoen Egunean

Bazkarian 100 lagun inguru egon ziren; ondoren, poteoa edota musika izan zituzten

G. AZKUE

Jende ugari ibili zen larunbatean Villabonako kaleetan barna, izan ere, Tximo Herri Ekimenak Presoen Eguna antolatu zuen. Eneko Gorostidi preso billabonatarren askatasunaren aldeko plataformak egun guztiko festa antolatu zuen.

Diana eduki zuten hasteko, eta horren inguruan herritarrek perkusio erakustaldia egin zuten. Ondoren ekitaldia izan zen Errebote plazan, presoen egunean presoak gogoa eduki nahi baitzituzten.

Jolasak eta bazkaria ondoren, 100 lagun inguru bildu ziren mahaia baretan larunbat eguerdian. Eta trikimanifapoteoarekin amaitu zen

egunerako programatutako festa.

Gauean, Jum-jum senegaldar taldea hurbildu zen Villabonara bertako Nekin taldearekin batera kontzertua eskaintzera. Hasiera batean Errebote plazan bertan egitekoak baziren ere, euriaren arriskua zela-eta gaztetxean egitea erabaki zuten.

Tximok oso balorazio ona egin du egunaren inguruan, bertako kideen esanetan, «oso giro polita egon zen egun guztian zehar. 100 lagun inguru ibili ginen bai bazkaltzen eta baita gainerako ekintzetan ere».

Presoen egunaren baitan bertan bildu zirenek, presoei gutunak idazteko aukera izan zuten.

VILLABONA ▶ INGURUMENA

Erraustegia Donostian jartzea erabaki du Jarraipen Batzordeak

Donostiak 10 boto jaso ditu, Villabonak 2 eta Urnietak 1; Elorzak erabakia «teknikoa baino, politikoa» izan dela dio

ERREDAKZIOA

Atzo izan zuten Errenterriako San Markosen bigarren erraustegiaren kokalekua erabakitze bozketatik zortzi udaleko alkateek eta zazpi mankomunitateetako lehendakariak. Azkenean, erraustegia Donostiako Loistegikogainan, Aritze-ta inguruan, jartzea erabaki du Jarraipen Batzordeak.

Erraustegia jartzeko Gipuzkoako bederatzi leku aztertu zituzten, tartean, Villabonako Amasamendi. Azkenean, Donostiak hamar boto jaso ditu, Villabonak bi, Urnietak 1 eta

boto bat zurian eman dute bozketan.

Donostiako alkateak erabakia hartzeko eztabaida sakona baten beharra azpimarratu zuen bileran aurkeztutako txostenean eta erabakia geroago hartzeko eskatu zuen, baina ez zen bere proposamena onartu. Hartutako erabakia ez duela aintzat hartuko azaldu zuen Odon Elorzak, Donostiako alkateak; eta kokalekuaren erabakia «politikoa» izan dela salatu zuen, hots, irizpide politikoak teknikoaren aurretik ipini direla. Hartutako erabakia EAJK eta EAK «inposatu» egin

duela esan du, gainera, Joseba Egibar GBBko lehendakariari egotzi dio Elorzak hautaketa.

Beste errauste planta Txingudiko bailararentzat izango da, Hendaia, Hondarrabia eta Irun biltzen ditu.

Errausteketa planta hauen aurka plataforma ugari sortu dira Gipuzkoa osoan, baita Villabonan ere. Pasa den astean burruna egin zuten udaltekaren aurrean eta beste ekintza ugari ere burutu dituzte egunotan. Plataformak plantak inon ez egitearen alde agertu dira eta baita atzoko bozkaren aurka ere.

ADUNA ▶ KIROLA

Lau partida jokatu dira Adunan I. Trans-Ernio Txapelketaren baitan

Hurrengo partidak bihar jokatuko dira, 17:00etan hasita frontoian

G. AZKUE

Lau partida jokatu zituzten herenegun Adunako I. Trans-Ernio Esku Pilota Txapelketan.

Benjaminetan Altunak eta Aburuzak, Ansa eta Garin garaitu zituzten 15 eta 16. Infaniletan, Olazabalek eta Otaegik 8 eta Gaztañagak eta Aizpuruak 18 amaitu zuten partida. Mendinuetak eta Otegitik 18 eta 16 irabazi zuten Odrizola eta Azkueren aurka.



Altuna-Aburuzak eta Ansa-Garin benjaminak herenegun. G. AZKUE

Eta azkenik, kadeteetan, Ira-zustak eta Mujikak 22 eta 12 irabazi zuten Loidiren eta Jaurregiren aurka.

Hurrengo partidak bihar jokatuko dira, atzeratutako partidak hain zuten ere. Benjaminetan Escudero eta Jauregi arituko dira Delaia eta Labakarekin aurrez aurre. Kadeteetan, Telletxeak eta Galarragak Barreiros eta Garmendiaren aurka jokatuko dute. 17:00etan hasiko dira.

Iriarte
GERRUNTZE • LENZERIE
Bainujantzi eta bere osagaien merkealdian gaude
Korreo kalea, 7 • TOLOSA • Tel.: 943 67 03 27

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Ordizia. 50m2-ko etxebizitza, 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

Alegia. Eraikuntza berria, duplexak eta etxebizitzak 34.500.000 pezetatik aurrera. Informazioa: Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Berrikuntza egin duen 50 m2-ko etxebizitza, 2 gela eta trastelekuarekin. Kanpoaldera begira. Inmo Etxesagasti 943 69 68 56.

Villabona. Kale Nagusian 75 m2-ko etxebizitza, 3 logela, aparteko egongela-sukalde «amerikarra», bizitzera sartzeko moduan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 185 m2-ko etxebizitza zoragarria. Egongela, sukalde-jangela, 5 logela, 2 bainugela eta trasteleku. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 1.150 m2-ko etxe abikia, 3 solairuko. Pizina eta garajearekin. Oso egokia ostalaritzarako. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 150 m2-ko etxe abikia. Lorategiarekin. 76.000.000 pta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 170 m2-ko 2 solairu dituen baserria salgai, berrikuntza egiteko, teilatupearekin eta 125.000 m2-ko fruitu arbolekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 70m2-ko etxebizitza, 4. solairua igogailuarekin. Sukalde-egongela amerikarra, 3 logela, bainugela. Berritua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Lokal komertzialak, taberna, alokairuan edo salgai. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona, Zizurkil eta Andoain. Taberna salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Garajeak salgai, Oria eta Pablo Gorosabel kaleetan. 4.000.000 pta-tik aurrera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskari handiagatik. Nekazal lursailak, urbanistikoa... Salzteko eta alokatzeko. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

ALEGIA ▶ JAIK

Bizitza osoko lana eskertzeko ekitaldia

Udalak oroigarria eskaini zion German Intxausti zenaren sendiari; emazteari txapela eta lore-sorta eman zion

OLAIA ESKITXABEL

Igandean txintxarriaren erreketa eman zuten amaiera alegiarrek herriko jaietara; azken egunerako, hala ere, ekitaldi garrantzitsu bat antolatu zuten, German Intxausti txistularia zenaren omenaldia, hain zuzen ere. Herriarrek Intxaustik jo eta konposatutako abestiak entzuteko aukera izan zuten, txistulari, herriko dantzari eta Txintxarri abesbatzako kideen eskutik.

Udalak sendiari oroigarria eskaini zion; eta emazteari txapela eta lore-sorta. Sendiak, era berean, beste oroigarri bat oparitu zion Udalari.



Dantzariak, txistulariak eta Txintxarri abesbatzako kideak batera eskaini zuten Intxaustik konposatutako *Polka* abestia. O.ESKITXABEL



Intxaustiren alaba eta Udaleko ordezkaria, Hektor Colinas, opariak elkarbanatzen. O.ESKITXABEL



Intxaustiren alargunari txapela eta lore sorta eskaini zion Udalak. O.ESKITXABEL

ALTZO ▶

Zikero-jaterako txartelak salgai Arandia jatetxean

San Inazio jaien barruan, uztailaren 30ean egingo den Zikero-jaterako txartelak salgai aurkitzen dira Arandia jatetxean 16 euroren truke; 200 txartelak jarri dira salgai baina jada erdiak saldu dira. Beraz afarira joan nahi dutenek txartelak lehenbaitelen eskuratzea gomendatu dute antolatzaileek.

ALEGIA ▶

Jubenil eta kadete mailan jolasteko aukera



Intxurreko jubenilak. O.ESKITXABEL

Intxurre Kultur Kirol elkarteak, jubenil eta kadete mailako jokalariei datorren denboraldian jokatzeoko aukera eman nahi diete. Interesatuak, bihar, asteazkena, 19:00etan Alegiako futbol zelaian izango dute hitzordua. «Kirol arropa eramatea» gomendatu dute Elkartearen ordezkariak.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Asunzion klinika: 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerbitzu: 693930

GARRAIOAK

▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Iturrioz, I., Euskal Herria, 3 (Ibarra). 67 09 15
Gimeno, A., Lizarraga, 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitate. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aiz. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

ASTEASU/ALBIZTUR ▶ SANTAMARINA JAIK

Jende ugari gerturatu zen herri kirolak ikustera

Zaldi karreran bigarren sailkatu zen Izagirre asteasuarra; irabazlea, Castañares izan zen

O.ESKITXABEL

Egun bateko jaiak egin zuten herenegun Santamarian (Albiztur). Goizean meza nagusia entzun zuten bertakoek; arratsaldean, jende ugari bildu zen herri-kiroletako saioa ikusteko asmoz. Harri-jasotzaileekin batera (Izeta II.a eta Haimar Irigoien), aizkolariak, trontzalariak, korrikalariak... aritu ziren. Asteasun herenegun amaitu

ziren ostiralean hasitako Santamariako jaiak; ekitaldirik garrantzitsuen IV. Zaldi Lasterketa izan zen.

Hamabi zaldunek hartu zuten parte Antxotako zirkuitoan izan zen lasterketan. Lehenengo postuan, Josu Castañares elgoibartarra iritsi zen; bigarren, Iñaki Izagirre asteasuarra iritsi zen eta hirugarren, Igor Castañares, irabazlearen anaia sailkatu zen.



Jende ugari gerturatu zen herri kirolak ikustera. O.ESKITXABEL

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault 19, 16V. Egoera onean. 618 25 49 60.

LAN ESKAINTZA

Taberna. Astebukaeratarako neska bat behar da barrarako. Telf: 943 69 19 33.
Taberna. Tolosaldeko taberna batean lan egiteko neska bat behar dugu. P.K. 171, Villabona.
Etxeko lanak. Alegian emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Ordutegia 10:30etik 14:30era. Telf: 943 65 30 34 (arratsaldetan deitu).

IBARRA ▶ I. GARAGARDO FESTA

Egindako lana eskertu eta giroari eusteko, irteera Lastur-era

Garagardo Festan lanean aritutakoak ez ezik, herritar guztiak gonbidatu dituzte; urriaren 2an izango da irteera



Garagardo Festako aurkezpenaren argazkia. HITZA

DANI GIBELALDE

Lehen aldiz herrian egindako Garagardo Festan zehar 220 lagun inguru aritu ziren lanean. Arrazoi askorengatik, balorazio «oso ona» egin zuten. Besteak beste, adin eta era guztie-

tako jendea bildu zen bertan lanean, eta «giro paregabe horrek» jarraipena izatea nahi dute antolatzaileek. Hala, inorrek lan egin beharrik gabe, denak elkartuta, lanean aritu zirenez gain, herritarrek ere gonbidatu nahi dituzte «egun

pasa bikain bat igarotzera»; urriaren 2an, Lastur-era egin-go duten irteerara, hain zuzen. «Ekitaldi bat antolatzerakoan, beti norbaitek lan egin behar izaten du. Oraingoan, denok disfrutatzeko ekitaldi bat antolatu nahi izan dugu», aipatu dute antolatzaileek. Talde guztien artean adostutako erabakia izanda, eta jendea «gogotsu» omen dago. «Auzolana bai, festa ere bai» erantsi dute antolatzaileek.

Izan ere, «Gazte eta helduen artean oso giro polita sortu zen Garagardo Festan. Irteera, harreman hori sendotzeko baliagarria izango dela espero dugu, jendeak behintzat ilusio handia du».

Gutxienez, irteeran «bi autobus betetzea» dute helburu. Autobusen kostuak, Garagardo Festaren kargu joango

EGITARAU ▶

URRIAK 2

09:30. Kultur Etxe paretik irteera, Zarautz aldera.

11:00. Hamaiketako Meagasen, herriko taldeen eskutik.

12:00. Kalejira Getarian, trikitilariak alaituta.

14:30. Lastur-en bazkaria: urdaiazpikoa, entsalada, fritoak... hasteko. Bigarren platera: saiheskia; etxeko postrea, kafea. Edateko, sagardoa eta ardoa.

Bazkalostean. Zezenak, edo biganbak Lastur-en, ordubate inguru. Ondoren, etxera itzulera autobusez.

BESTELAKO DATUAK

Txartelak. 23 eurotan. autobusa, hamaiketako, bazkaria eta zezenak sartzen dira prezioan.

Saltokiak. Zubiaurre, Atari, Sendi Ekintza, Danon Txokoa eta Arkaiz-Azpi tabernetan.

dira. «Partaidetza zabala izatea nahi dugu».

Auzolanari garrantzia handia ematen diote talde antolatzaileek. «Heldu eta gazte, emakume eta gizon, herri guztia batera elkartasun hitza patrikan jarriaz. Herri batua ez da inoiz desagertuko».

LIZARTZA ▶

Bihar herri batzarra udaletxean

Axurdario plataformak deituta, herri batzarra izango da bihar 21:00etatik aurrera udaletxeko areto nagusian. Bertan, «Udalaren egoera eta aurrera begirako asmoak» aztertuko dituzte. Joseba Egibarren hiru zinegotzi herritarren esku uzteko erabakia EAJ-k atzera bota zuen GBBren batzarrean. Joan den astean EAJ-k Lizartzako Udalean lau zinegotzirekin aginduko duela jakinarazi zuen.

IBARRA ▶

‘Buscando a Nemo’ filma gaur zine klubean

Ibarrako Gazte Asanbladak antolatutako udako zine-klubearen baitan, *Buscando a Nemo* filma eskainiko dute gaur 22:00etan. Film guztiak asteartean eta ostegunetan izaten dira, udaletxe ondoko frontoian. Etzi *Los lunes al sol* filma izango da, ordu berean. Hilaren 27an, *Shin Chan* eskainiko dute gaztetxoentzat eta 29an *El club de la lucha* helduentzat. Abuztuan ere film ugari eskainiko dituzte.

GAZTELU ▶

Behibis taldearen antzezki zuna bihar udaletxean

Behibis taldeak *Txakur beltz, handi eta... iletsu* batizenezko antzezki zuna eskainiko du bihar 11:00etan Gazteluko udaletxean, haurrentzat. Uli Mankomunitateak antolatutako emanaldia, Kutxaren laguntzaz. Patricia Franco da antzezki zunen aktorea. Liburu magiko batean agertzen diren pertsonaien gora-beherak kontatuko ditu.



Motozaleek girotu dute Ibarra asteburuan

IBARRA ▶ 148 motozale izan dira asteburuan Ibarrian. Altzo, Alegia, eta Zaldibitik barna bira bat egin zuten atzo motozaleek, eta sari eta opari ugari banatu zituzten. Bazkariarekin amaitu zen topaketa. Era guztietako motoak eta motozaleak ikusi ahal izan dira.. D. GIBELALDE

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako
galdera berria:

Donostian Loiztegiko gainan jarriko due erraustegi berria. Zer duzu esateko?



LEITZA ▶ POLITIKA

UPNk Jose Javier Mujika gogoratu du hirugarren urtemugan

Miguel Sanz Nafarroako lehendakaria izan zen ETAk hil zuen zinegotziari egindako lore eskaintzan



Jose Javier Mujikaren senitartekoak eta agintariak igandeko ekitaldian, zinegotzia hil zuten tokian. J. SAIZAR

ERREDAKZIOA

Jende asko bildu zen igandean Amazabal auzoan, ETAk duela hiru urte Jose Javier Mujika bere furgonetan jarritako lehergailu batez hil zuen tokian, zinegotzia gogoratzeko. UPNko buruzagi asko ziren, tartean Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakaria, Alberto Catalan UPNko idazkari nagusia, Rafael Gurria Nafarroako Legebiltzarreko lehendakaria eta Silvestre Zubitur Leitzako

zinegotzia. Patxi Saenz alkatea eta zinegotzi batzuk ere izan ziren ekitaldian, hildakoaren senitartekoekin eta herritarrekin batera.

Ekitaldian lore eskaintza, otoitza eta bertsoak izan ziren, Pello Urkiola hildako lagunak abestuak. Demokrazia «lortzen» ari dela eta ez dela isilduko esan zuen bertsolariak eta bildutakoen artean «jende berria» ikusten zuela. Ondoren Mujikaren aldeko meza bat izan zen San Miguel elizan.

Patxi Saenz alkateak —Aralar taldekoa— udal elkarbizitzak «gorabeherak» izaten dituela, baina giroa «nahiko ona» dela eta herrian elkarbizitza «ona» dela «denak elkar errespetatuz» esan zuen.

Miguel Sanz «familiako batasunaz» harro agertu zen eta Mujikaren herioak utzitako «hutsunea betetzen» lagunduko dutela esan zuen. «Demokrazia defendatzen ez duten alderdien ilegazioa aurrerapausoa» dela esan zuen.

ARESO ▶ KIROLA

Aresok Euskal Herriko Txapelketa irabazi du

Sokতিরাকো 560 kiloko taldea garaile atera da; 600 kilokoa, Nuarberentzat geratu da

J. ASTIBIA

Aresoko sokatira taldeak Euskal Herriko lurgaineko Sokatira Txapelketa irabazi zuen larunbatean: aresoarrek 560 kiloko txapela eskuratu zuten.

Laukizen jokatu ziren 560 eta 600 kiloko txapelketako azken saiora, Aresokoak puntu bateko aldearekin joan ziren batera eta bigarren bestera, eta lekuak berretsita itzuli ziren etxera. Baina ez borrokatu beharrik gabe.

560 kiloko tiralditan, Gaztedikiko puntu bateko aldeia izanagatik saioa hasi aurretik, eguneko puntuaketa gehituta, berdin geratu ziren bi taldeak, Gaztedik bi saio irabazi egin baitzituen. Ondorioz, txapelketako azken saioa izaki, elkarren aurka tiratu beharra izan zuten bi taldeek, berdinketa hausteko.

Berdinketa haustea

«Oso gogorra izan zen, batez ere lehendabiziko tiraldia», zioen tiratzaile batek, atzo. Berak adierazi zuenez, tira-lekuan ere alde pixka bat bai omen zegoen eta aresoarrei alde zail horretan tiratzea egokitu omen zitzaizen lehenengo. Gaztedikoek metro eta erdi soka kendu omen zieten, baina gero atzeraka hasi, bueltatu eta tiraldi oso intentso baten ondoren, «aurkariak kokalekuetatik mugituta zeuden eta nekea nabaritzen zitzaizen aurpegietan», nabarmendu

zuen tiralariak, «tira eta tira aritu ginen, erabat tentsioan». Azkenik, faltaz irabazi omen zuten txanda hori aresoarrek.

Lekuz trukatu eta tenkatu orduko, falta bat eman omen zuten aresoarrei. Tiraldian, bina jasoko zituzten. Azkenik, aurreko saioko nekea gainean izanda, «4 metroan ekarri genituen gure aldera», zioen gustura, «azkenean entregatu arte». «Epaileak puntua emateko eskua gure aldera altxatu zuenean, pozez saltoka hasi ginen».

Horrela, berdinketa hausteko saioan bi tiraldiak lortu ondoren, Aresok 560 kiloko lurgaineko Euskal Herriko txapela eskuratu zuen, Xabier Arraras, Boni Etxetxikia, Jon Otermin, Josu Etxezarreta, Joseba Olazabal, Patxi Baraibar, Mikel Baraibar eta Jabier Oterminen eskutik, Migel Angel Sukuntza entrenatzaile zutela, normalean tiratzen aritzen bada ere.

600 kiloko finalean ere ez zuten leku txarra lortu, Nuarberen ondoren, bigarren egin baitzuten aresoarrek, Anjel Mari Loiarte eta Jon Gurrutxaga titular zirela eta lau tiralditatik, bitan garaile ateraz. Konforme agertu ziren egindako lanarekin, «pisu guztietan tiratzeko 13 lagun gaude, aldatek egiteko aukera gutxi ditugu, baina moldatu egiten gara», argitu dute. «Orain 640rako pixka bat gehixeago jateko moduan gara behintzat», zioten umoretsu.



Iñaki Uria ASKATU!

DEIALDI NAZIONALA

Uztailaren 20an, 20:00etan,
kontzentrazioa Zarauzko Udaletxearen aurrean
(Lege Zaharren plaza)

BIDEGABEKERIAREKIN AMAITU BEHAR DUGU

Iñaki Uria Askatu Taldea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Gaztelu. Behibis antzerki taldearen *Txakur beltz, handi eta...* *iletsu bat* antzezlanaren aurkezpena. Bihar, 11:00etan, Patricia Francoren eskutik, udalabean.

Ibarra. Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketa: txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkartearen tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan. **Lizartza.** Axurdario herri plataformak herri batzarrera deitu du biharko, 21:00etan, udalabeko udalbatzar aretoan. Gaia: udalabekaren egoera eta aurrera begirako asmoak.

Tolosa. Peñasgal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du: 16-25 urte bitarteko graduaturik gabeko gazteentzat; mailako prestakuntza teknikoa; graduatua lortzeko eskolak; lan mundurako irtenbidea. 943 67 61 61.

Tolosa. Alpino Uzturreren irteera Pirinioetara asteburu honetan, Canfranc-Panticosa ingurura, Anayet eta Arriel mendiak igoz. Izen-ematea: Gudari 5, behe, 943 65 27 89. **Villabona.** Perkusio eta grafiti ikastaroak Errebote plazan. Bihar, 16:00etatik 21:00etara, Udalak gazteentzat antolatuta.

ERAKUSKETA

Altzo. *Altzoko Erraldoia*, *Altzo ezaguna egin duen gizona* erakusketa, haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago: 943 65 24 13.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Zinema aire librean. Gaur, 22:00etan, *Buscando a Nemo* udalabeko ondoko frontoian. Ostegunean, *Los lunes al sol*, leku berean, 22:00etan. Abuztuaren 12a arte astearte eta ostegunero Gaztebakeko antolatuta: www.ibarrakogaztebakea.net.

ZINEMA

Tolosa. *Ladykillers*. Gaur, ikuslearen eguna, 19:30etan eta 22:30ean, Leidor zinema aretoan.

Jolasteko bakarrik ez

TOLOSA ▶ Foruen etorbidean dagoen jolasparkea gainezka izaten da arratsaldero; haur eta heldu, bertan elkartzen dira egunero



Haur eta heldu askoren topaleku izaten da Foruen etorbideko jolasparkea udako hilabeteetan; gainezka izaten da arratsaldero. I. ETXEBESTE

I. ETXEBESTE

Tolosako Foruen etorbidean dagoen haur parkera arratsaldero-arratsaldero joaten direnak asko dira. Ekainaren erdi aldetik abuztuaren bukaera arte gainezka izaten da egunero jolasparke hori: oportetara edo udalabekutara joan ez, eta Tolosan geratu diren haurrek beteta. Aitarekin, amarekin edo biekkin joaten dira batzuk, «zaintzailearekin» besteak; eta gero eta ohikoa goa da aiton-amonak kolonpioan gora eta behera dabilen haurrari tiraka ikustea.

Adinez nagusienek bizikle-

tak eramaten dituzte hara eta hona ibiltzeko. Txirristarekin izango dira bizpahiru urte aspertu zirela; baina txikiagoa den anai-arrebare so egon behar izanez gero are gehiago aspertuko ziren, ziurrenik.

Jaioberriek ere ez dute sobera gozatzeko aukerarik izaten. Hori bai, haurrak eta haiek begiztatzen egoten diren helduak adina ume eta ume kotxe ikusten dira parkeko iskin bakoltzean. Horiek izango dira epe motzera parkearen erabilera bermatuko dutenak, eta, ez pentsa, ibilian hasi baino lehen labirintoan sartzeko gogoa ikusten zaionik izaten da.

Bada bi eta hamar urte bitarteko haurrek pasatzen dute ongien jolasparkean. Haiek dira txikiagoei nondik nora egin behar duten erakusten dietenak, indioen eta bakeroen arteko gudak antolatzen dituztenak eta hondarrezko igerilekua barazki denda bilakatzeko gai direnak. Goizez ludotekan ikasitakoak erakusten dizkiete gainerakoei arratsaldero. Eta heldunen munduan bezala: arauak dakizkienak jartzen ditu.

Alboetara begiratuta, kafetegiren batean elkartu beharrean itxuraz egunero parkeko bankuan bat egiten duten bi emakumezko hizketan. Hau-

rrak lagun egin direla-eta 'afaltzeko geratu beharko dugu' esanez, aitzakia bila dabilen gurasoak, haurrari hamargarrenez etxera joateko garaia dela esaten dion aitona...

Hala ere, iturri ingurua da jende gehien elkartzen duen lekua. Inongo zalantzarik gabe. Bero denean bezala, haurrek ez baitute bustitzeko beldurrik aterata dagoenean ere. Iturritik estalatakoarekin agian ez, baina bat baino gehiago blai egin da helduko zen etxera atzo. Oza-oza libratu ginen gu, behintzat: ekaitza baino bi minutu lehenago ateratu zuen argazkia HITZAK.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Erik Sagastume Uriarte
 (Amezketeta). Zorionak eta muxu bat ebekoen partetik. Aupa rubio!



URTE ASKOAN
Lidia Ansa Peña. Gaur 8 urte. Zorionak etbako sorginari, maite zaitugun guztion partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak...

zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behe - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!